

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa baten produktu bat aurrera eramateko bazkideak eta hornitzaileak beharko ditugu.

Gure kasuan, hornitzaile egokiak izatea ezinbestekoa izango da, gure produktu guztia ekoiztuko dutelako: plastiko berrerabilia eta burdina.

MALE makinari dagokionez, lau bazkide izango gara: Elena Mijangos, Ainhoa García, Lorena Carracedo eta Maialen Aramburu.

Maialenek, Ainhoaren laguntzarekin, diseinua prestatuko du: kolorea, plastiko erosoak, etab. Produktua merkaturatuko du ere bai. Horretarako, merkatu egoera aztertuko du ahal den probetxu gehien ateraz.

Lorena administratzaile lanetan arituko da, hau da, bazkide bakoitzaren funtzioak zuzenduko ditu, horrela helburu bat lortzeko, makina sortzea eta saltzea.

Elenak eta Ainhoak teknologiarekin ondo moldatzen direnez gure webgunea sortu eta kudeatuko dute, produktua hasiera batean internet bidez salduko dugulako. Bestalde, aplikazioa sortzez ere arduratuko dira. Honetarako baliabide nahikoak ez dituztenez, beste enpresa batekin lan egingo dute.

Bi osagai dituen gure makinak, bi hornitzaile izango ditugu: batek, dispositibo teknologikoa garatuko du eta besteak, egindako diseinua plastiko berrerabiliaz egingo du.

Hornitzaileen kudeaketa egokia ezinbestekoa izango da, gure produktu guztia ekoiztuko dutelako. Gure enpresan erabaki dugu bazkide bakoitzak rol bat izatea, errazagoa izango delako proiektu hau aurrera eramateko.

Hasiera batean proiektua aurrera eramateko makinak sortzean, [Green Peace](#) organizazioarekin adostuko gara haiek plastiko berrerabilgarria (baliabideak) eskuratzeko guri, honela makinak sortzeko gai izango gara ahalik eta diru gutxien

xahutuz. Behin makinak eginda daudenean, eta plastikoa lortutakoan, hau plastikoa berrerabiltzen duten enpresei diru truke bidez salduko diegu.